

Irakaskuntza-eskaintza osatzeko eta baimentzeko hizkuntza-irizpideak

(2026-01-22)

EHUren funtsezko bereizgarria da ikasketak EAEko bi hizkuntza ofizialetan (euskara eta gaztelania) eta hizkuntza ez-ofizialetan, batez ere ingelesez, eskaintzea. Hortaz, nahitaezkoz hartzen dugu hizkuntza ofizialen eta ez-ofizialen erabilera batera planifikatzea eta arautzea, hizkuntza batean egiten den ahaleginak beste hizkuntzen erabilerari eragiten baitio. **Dokumentu honen helburua da irakaskuntza-eskaintza hizkuntza-irizpideen arabera osatzeko eta baimentzeko irizpideak finkatzea.**

Hastapenetan, unibertsitate elebakarra zen EHU, instrukzio-hizkuntza modura gaztelania baino erabiltzen ez zuena. 1979-80 ikasturteetik aurrera hasi zen sartzeko euskara instrukzio-hizkuntza modura, orduan euskararen biziberritzean engaiatuta zegoen euskal gizarteak denetarik profesional euskaldunak behar baitzituen, bereziki, irakasleak, komunikazio alorreko profesionalak eta administrazioarako langileak. Euskararen sarrera progresiboa izan da, eta ahalegin handia eskatu du, aurrera eramateko euskaraz irakasteko gaitasuna duten irakasleak behar baitira, euskarazko hizkuntza-baliabide espezializatuak (terminologia, fraseologia...) garatzeko konpromisoa dutenak. EHU euskararen erabilera normalizatzeko planen aitzindaria izan zen Euskara Zientifikoaren Plana (1979), eta 1990ko hamarkadatik aurrera, bi Normalizazio Plan eta lau Plan Gidari egin dira. Une honetan indarrean dagoen plana da [Euskal Herriko Unibertsitateko Euskararen IV. Plan Gidaria \(2023-2027\)](#), eta zenbait helburu ezartzen ditu graduatan eta graduondokoetan euskara instrukzio-hizkuntza modura erabiltzeari dagokionez. Helburu horiek kontuan hartu behar dira ikasturtez ikasturteko irakaskuntza-eskaintza osatzeko orduan.

Hizkuntza ez-ofizialak instrukzio-hizkuntza modura erabiltzen hasteko prozesua 2005. urtean hasi zen [Eleaniztasun Plana](#)¹ deritzon dokumentuaren bitartez. Plana UPV/EHUko Estatutuetan (2004/01/12) eta Euskal Unibertsitate Sistemaren Legean (2004/03/12) oinarritzen da. Lege horietan ezartzen da unibertsitatean bi hizkuntza ofizialak erabiliko direla, betiere euskararen erabilera bermatuko dela hizkuntza-normalizazioarako arautegien bidez, eta, aldi berean, zientzia garatzeko beste hizkuntza batzuk ere sustatuko direla, eta jarduera akademikoetan horien ezagutza eta erabilera sustatuko dela. Hartara, planak proposatzen du hizkuntza ez-ofizialen (ingeleza, frantsesa eta alemana) erabilera instrukzio-hizkuntza modura sartzeko unibertsitateko ikasketetan baita administrazioan ere, helburu hauek lortzeari begira:

1. Jarraipena ematea EAEk Bigarren Hezkuntzan dituen eleaniztasun-proiektuei.
2. Ikasleen hizkuntza-prestakuntza osatzea, Europako Goi Hezkuntzako Esparruaren barruko mugikortasuna eta lanerako sarbidea errazteari begira.
3. Sócrates-Erasmus, Séneca-Sicue eta bestelako mugikortasun-programen bidez guregana datozen ikasleentzako irakaskuntza-eskaintza handitzea.
4. Irakaskuntza eta Ikerkuntza Langileen (IRI) eta Teknikarien eta Kudeaketako eta Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen (TEKAZEL) mugikortasuna sustatzea, haien garapen profesionala faboratzeko, irakaskuntzaren eta ikerketaren alorrean.

Orain arte (2025-26 ikasturtera arte) indarrean egon dira [UPV/EHUren III. Nazioartekotze Plana \(2023-2026\)](#) eta horren helburuak betetzeari begira onartutako azken ebazpena ([Ebazpena, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetza sustatutako deialdia egiten duena, hizkuntza ez-ofizialeko irakaskuntza baimentzeko eta 2025-2026 ikasturterako irakasgaien nazioarteko ibilbideak sortzeko](#)). Dokumentu horiek abiapuntutzat hartuko ditugu irakaskuntza-eskaintza osatzeko eta baimentzeko hizkuntza-irizpideetan.

1. Hizkuntza ofizialen eta ez-ofizialen erabilerarako oinarriak

EHUren estatutuetan eta Euskal Unibertsitate Legean zehazten da unibertsitatean EAEko bi hizkuntza ofizialak erabiliko direla, betiere euskararen erabilera bermatuta. Hizkuntza ez-ofizialen erabilera sustatuko dela ere zehazten da, baina bigarren maila batean. IV. EPGan ere ikus daiteke mailakatze hori: «Graduak

¹ Azpimarratu beharrekoa da hasierako dokumentu horietatik "eleaniztasun" terminoa erabili dela hizkuntza ez-ofizialak txertatzeko plangintzari erreferentzia egiteko, baina erabilera hori ez dela egokia, "eleaniztasun" terminoak hainbat hizkuntzaren ezagutzari edota erabilerari egiten baitio erreferentzia eta, beraz, EHUren kasuan bi hizkuntza ofizialen eta hizkuntza ez-ofizialen ezagutza edota erabilera barne bildu behako litzuzke.

euskaraz bermatuko dira eta beste hizkuntzei lekua egingo zaie, betiere euskararen normalizazio-prozesuan aurrera eginez».

1.1. Gaztelaniazko irakasgaien eskaintza

EHUko irakaskuntza eta komunikazioa gaztelaniaren inguruan ardatzuta dago. Hori espero izateko egoera da kontuan hartzen badugu gaztelania dela hizkuntza hegemonikoa Espainiako estatuan eta Euskal Autonomia Erkidegoan. 1980ko hamarkadaren hasiera arte gaztelania baino ez zen erabiltzen instrukzio-hizkuntza modura gure unibertsitatean. Euskararen eta beste hizkuntza batzuen erabilera ere zabaltzen joan bada ere, oraindik ere, gaztelania da gehien erabiltzen den instrukzio-hizkuntza. Izan ere, 2025-26 ikasturtean (taldekatzeak kontuan hartuta) eskaini diren graduko 3437 irakasgaietatik, 2.668 (% 77,6) eskaini dira gaztelaniaz, 2.520 (% 73,3) euskaraz, eta 521 (% 15,1) hizkuntza ez-ofizialetan, nagusiki ingelesez. Datu orokorrak desitxuratzen dituzten zenbait gradu eta irakasgai kenduta (hizkuntza aztergai dutenak, hezkuntzakoak eta medikuntzakoak), aldea, are handiagoa da: 2.479 (% 94,3) gaztelaniaz, 2.076 (% 78,9) euskaraz, eta 339 (% 12,9) hizkuntza ez-ofizialetan. Azpimarratzekoa da **403 irakasgai gehiago eskaintzen direla gaztelaniaz euskaraz baino**, nahiz eta egun gehiago diren euskaraz matrikulatutako ikasleak (% 58 inguruan) gaztelaniaz matrikulatutakoak baino.

Masterretan askoz ere txikiagoa da euskararen presentzia, eta gaztelania da zalantzarik gabe hizkuntza nagusia. Izan ere, 2025-26 ikasturtean eskaini diren 110 masterren artean, **72 osorik gaztelaniaz amaitu daitezke**, 19 osorik ingelesez, eta 18 baino ez osorik euskaraz, horien artean 11 irakasleen formaziorako masterrak izanda.

Gaztelania normalean ez da aipatu ere egiten hizkuntza-planetan, hain zuzen ere, hizkuntza hegemonikoa delarik sustapen berezirik behar ez duela uste baita. Hala ere, beharrezkotzat jotzen dugu gaztelania instrukzio-hizkuntza modura erabiltzeko arrazoiak eta irizpideak ere aztertzea.

GAZTELANIA INSTRUKZIO-HIZKUNTZA MODURA ERABILTZEKO ARRAZOIAK

- **EAEko hizkuntza ofizialetako bat** da, eta ezarpen handia du EHUko ikasketen irakaskuntza-eskaintzan.
- Badira **euskaraz ez dakiten EAEko ikasle batzuk** eta, batez ere, gaztelaniak aukera ematen die **Espainiako beste komunitate batzuetako ikasleei** gure unibertsitatera etortzeko.
- **Mugikortasun-programetan** ikasle asko **EHUra erakartzeko aktibo garrantzitsua** da gaztelania, bai Latinoamerikako ikasleak, baita gaztelania ikasi duten eta haien komunikazio-gaitasuna hizkuntza horretan hobetu nahi duten ikasleak erakartzeko.
- **Nazioartekotzerako tresna indartsua** ere bada, bai ikertzaileak EHUra erakartzeko baita EHUko ikertzaileak beste unibertsitate eta ikerketa-zentro batzuetara mugitzeko ere. Izan ere, **espainola hizkuntza ofiziala da mundu zabaleko 21 herrialdeetan**.

GRADUAN GAZTELANIAZKO IRAKASKUNTZA-ESKAINZA KUDEATZEKO IRIZPIDEAK

- Hainbat gradu daude osorik gaztelaniaz ezin egin daitezkeenak. **Gaztelaniaz matrikulatzen diren ikasleek aukera izan beharko lukete gradua egiteko behar dituzten ECTSen gutxieneko eskaintza izateko** (gutxienez % 100 nahitaezkoetan eta gutxienez % 100 hautazkoetan²). (Ikus [Irakaskuntza-eskaintza instrukzio-hizkuntzen arabera. 2025-26 ikasturteko eskaintza IV. Euskara Plan Gidarian jasotako 2023-24 ikasturteko eskaintzarekin alderatuta](#)). Hori izan daiteke arrazoi bat 2025-26 ikasturtean 10 ikasle baino gutxiago izan duen taldea mantentzeko, betiere gutxienez 7 ikasle matrikulatu badira taldean (Gradu hirueledunak aparte tratatuko dira).
- Graduren batean **2025-26 ikasturtean 1. ikasmilian gaztelaniaz matrikulatu diren ikasleen kopurua 20tik beherakoa izan bada, eta euskaraz matrikulatu diren ikasleen kopurua 30etik gorakoa izan bada, ikastegiak aztertu ahal izango du 2026-27 ikasturtean gaztelaniazko**

² Ehunekoa kalkulatuta dago ikasleak gradua bukatzeko behar duen ECTS kopurua kontuan hartuta, eta ez graduan eskaintzen den ECTS kopuru osoarekiko. Hartara, hizkuntza batean hautazkoen % 100 eskaintzen badira ikasleek badute gradua hizkuntza horretan egiteko gutxieneko ECTS kopurua, baina ez dute hautazkotasan nahi dituzten hautazkoak egiteko hizkuntza horretan.

talderik ez eskaintzea. Izan ere, arazoak sor daitezke hurrengo ikasmailetan eskaintza gaztelaniaz mantentzeko.

- **Euskaraz matrikulatu nahi duen ikaslerik ez da behartuko inola ere gaztelaniaz matrikulatzen, gaztelaniazko taldeak mantentzeko edo sortzeko.** Hortaz, **hautazkoetan ez da ezarriko hizkuntzen arabera kuporik**, eta gradu batetik besterako **pasabideetan** ere, aukera emango zaie ikasleei xedeko graduan nahi duten instrukzio-hizkuntza aukeratzeko.
- **Mugikortasun-programetan kanpora mugitzen diren ikasleak ere kontuan hartuko dira hautazko irakasgaien matrikularen datuetan.** Helburua da mugikortasun-programek ez kaltetzea EHUko bertako irakaskuntza-eskaintza.
- **Gaztelaniazko taldeetan matrikulatzen diren mugikortasun-programetako ikasleen kopuru handia hautazkoen taldeak mantentzeko arrazoia ere izan daiteke, betiere 7 ikasle baino gehiago matrikulatzen badira.**

1.2. Euskarazko irakasgaien eskaintza

UPV/EHUko Estatutuetan (2004/01/12) eta Euskal Unibertsitate Sistemaren Legean (2004/03/12) espreski zehazten da euskararen erabilera bermatuko dela hizkuntza-normalizaziorako arautegien bidez. Euskal Herriko Unibertsitateko Euskararen IV. Plan Gidariak (2023-2017) hau dio euskarazko irakaskuntza-eskaintzaz:

«Nahitaezko irakasgaiak euskalduntzea zen III. Planaren lehentasuna, eta helburu hori ia beteta dago, graduetako nahitaezko irakasgaien % 96,5 euskaraz eskaintzen baita UPV/EHU. Gure unibertsitateko graduetako nahitaezko irakasgaiak euskaraz eskaintzen dira, ia oso-osoan, eta gutxi dira nahitaezko irasgai batzuk oraindik euskaraz eskaintzen ez dituzten graduak. **Graduak euskaraz bermatuko dira eta beste hizkuntzei lekua egingo zaie, betiere euskararen normalizazio-prozesuan aurrera eginez.**

Graduetako nahitaezko irakasgaiak ia euskaldunduta izanik, hautazko irakasgaietan jarriko du indar gehigarria IV. Planak. **Graduen hautazkotasuna egokitzeko, gradu bakoitzak dituen gutxieneko hautazko kredituak hartuko ditugu oinarritzat.** Bi multzotan bereizi ditugu: batetik, gutxieneko hautazko kreditu-kopuru bera edo gutxiago duten graduak; eta, bestetik, gutxieneko hautazko kreditu-kopurua baino gehiago eskaintzen duten graduak. **Gutxieneko horretatik behera dauden graduetako ikastegiak estrategiak landu beharko dituzte hautazko irasgai gehiago euskaraz eskaintzeko**, eta Euskara Errektoreordetzarekin batera aztertu beharko dute zein diren zailtasunak eta aukerak. **Gutxieneko horretatik behera dauden graduak izango dira lehentasunezkoak, baina beste zenbait gradutan ere oraindik gutxiengotik gorako eskaintza handiagoa izan liteke, eta horietan eskaintza gehitzea ere izango du helburu Planak.** Kasu gutzietan ikastegi eta gradu bakoitzera egokitutako estrategiak landu beharko dira.»

Euskarazko hautazkoen artean bi motatako irakasgaiak jasotzen dira IV. EPGan: a) graduako diziplinetako irakasgaiak, eta b) EPGko irakasgaiak esaten zaienak. Bi hautazko mota horien funtzioa desberdina da.

Diziplinako irakasgaiak euskaraz eskaintzea nahitaezkoa da espezialitatez espezialitateko euskararen hizkuntza-baliabideak garatzeko, eta ikasleek hizkuntza-gaitasunak garatzeko alor horretan.

EPGko irakasgaietan, aldiz, zeharkako komunikazio-gaitasunak eta kontzientzia linguistikoa eta soziolinguistikoa lantzen dira, baita euskal kultura ere horietako batzuetan. Irakasgai hauek beti eskaintzen dira euskaraz, eta [Criterios a utilizar para la autorización de la oferta docente del curso 2012-13 y posteriores](#) dokumentuan, zehazten da «Las asignaturas optativas del Plan Director de Euskera se ofertarán siempre».

Hortaz, IV. EPGan euskarazko hautazkotasuna neurtzeko orduan EPGko irakasgaiak ere kontuan hartzen badira ere, *Irakaskuntza-eskaintza instrukzio-hizkuntzen arabera. 2025-26 ikasturteko eskaintza IV. Euskara Plan Gidarian jasotako 2023-24 ikasturteko eskaintzarekin alderatuta* dokumentuan, **2025-26 ikasturteko hautazkotasunaren balioak eskaintzen dira bai EPGko irakasgaiak hautazko arrunt modura zenbatuta eta bai hautazkotasunaren barruan zenbatu gabe.**

EUSKARA INSTRUKZIO-HIZKUNTZA MODURA ERABILTZEKO ARRAZOIAK

- EAEko bi hizkuntza ofizialen artean euskara da berezko hizkuntza. Hizkuntza gutxitua izanik, 1980ko hamarkadatik hona euskara biziberritzeko eta normalizatzeko ahalegin handia egiten ari dira, bai erakundeak eta bai gizarte-eragileak ere. **EHUK, EAEko unibertsitate publiko bakarra izanik, funtsezko eginkizuna du euskararen biziberritze eta normalizazio prozesuan.**
- **EHUn prestatzen dira gizarteak behar dituen denetarik profesional euskaldunak.** EHUK erantzukizun handia du profesional horiek euskarazko komunikaziorako gaitasun gorenak gara ditzaten, bereziki, haien jarduna komunikazio-egoera desberdinetara (formalak, akademikoak, espezializatuak, informalak...) egokitzeko gaitasuna gara dezaten.
- **Diziplinetako irakasgaiak ez ezik, garrantzitsua da baita EPGko irakasgaiak ere eskaintzea ikasleei,** euskarazko komunikazio-gaitasunak, kontzientzia linguistikoa eta soziolinguistikoa, eta euskal kultura lantzeko. Irakasgai hauek beharrezkoa dira EHUn prestatzen diren profesional euskaldunek goi mailako hizkuntza-gaitasunak garatzeko eta euskararen normalizaziorako eragile aktibo izateko lan-munduan integratzen direnean.
- **Euskal hiztunen hizkuntza-eskubideen artean** dago lehen eta bigarren hezkuntza ez ezik **goi mailako unibertsitate-ikasketak ere euskaraz egin ahal izatea.** EHUK euskara ikasteko hautua egiten duten ikasle guztiei bermatu behar die unibertsitateko ikasketak osorik euskaraz egiteko aukera.
- **EHUn euskaraz eskaintzen diren irakasgai gehienak mundu zabalean beste inon ez dira eskaintzen euskaraz.** Irakasgaiak euskaraz ematea funtsezkoa da euskarazko diziplina horietan aritzeko behar dituen hizkuntza-baliabideak (terminologia, fraseologia...) garatzeko, baita hiztunek diziplina horretan euskaraz aritzeko gaitasuna gara dezaten. Hortaz, **euskararen normalizaziorako funtsezkoa da irakasgai guztiak euskaraz eskaintzea.**
- Euskara gure graduetara EAEko ikasleak erakartzeko tresna ez ezik, **euskaraz ikasi nahi duten Nafarroako eta Iparraldeko ikasleak erakartzeko tresna** ere bada.
- Nazioartekotzeari dagokionez ere, mugikortasun-programetan **euskaldunen komunitateak dauden beste unibertsitate batzuetako ikasleak eta ikertzaileak erakartzeko tresna ere izan daiteke,** besteak beste, Boiseko, Renoko, Bordeleko eta Paueko eta Aturrialdeko Unibertsitatekoak, baita Etxepare Institutua zabaldua dagoen unibertsitateetan euskara ikasten duten ikasleak eta ikertzaileak ere.

GRADUAN EUSKARAZKO IRAKASKUNTZA-ESKAINNTZA KUDEATZEKO IRIZPIDEAK

Oraingo egoerari erreferentzia egiten diogunean, kontuan hartzen ari gara [Irakaskuntza-eskaintza instrukzio-hizkuntzen arabera. 2025-26 ikasturteko eskaintza IV. Euskara Plan Gidarian jasotako 2023-24 ikasturteko eskaintzarekin alderatuta](#) izeneko dokumentua.

- Zenbait gradu daude IV. EPGan deskribatutako egoeratik atzera egin dutenak. **Gutxienez 2023-24 ikasturteko egoera horretara itzultzea** izan beharko da helburuetako bat.
- Badira zenbait gradu nahitaezko irakasgaiak euskaratu gabe dituztenak. **Lehentasunezko helburua da nahitaezko irakasgai guztiak euskaraz eskaintzea** gradu guztietan. (Gradu hirueledunak aparte tratatuko dira).
- Hainbat gradu daude osorik euskaraz ezin egin daitezkeenak. **Euskaraz matrikulatzen diren ikasleek aukera izan beharko lukete gradua egiteko behar dituzten ECTS-en gutxieneko eskaintza izateko euskaraz** (gutxienez % 100 nahitaezkoetan eta gutxienez % 100 hautazkoetan).
- Hainbat gradu daude EPGko irakasgaiak aukeratu gabe osorik euskaraz ezin egin daitezkeenak. **Euskaraz matrikulatzen diren ikasleek aukera izan beharko lukete gradua egiteko behar dituzten ECTS-en gutxieneko eskaintza izateko euskaraz** (gutxienez % 100 nahitaezkoetan eta gutxienez % 100 hautazkoetan) **EPGko irakasgaiak aukeratu gabe ere.**
- Gradu ugaritan **gaztelaniazko hautazkoen eskaintza nabariki handiagoa da euskarazkoa baino.** Horrelakoetan, **helburua izango da euskarazko hautazkoen eskaintza gutxienez gaztelaniazko eskaintzarekin parekatzea, edo gaztelaniazko eskaintza baino handiago bihurtzea,** betiere gaztelaniaz matrikulatutako ikasleek gradua osorik egiteko gutxieneko ECTS-en eskaintza dutela bermatuta.

- **Azken xedea da etorkizun hurbilean graduatuko nahitaezko eta hautazko irakasgai guztiak euskaraz eskaintzea**, beharrezkoa izanez gero beste hizkuntzetako eskaintza modulatu.
- **Mugikortasun-programetan kanpora mugitzen diren ikasleak ere kontuan hartuko dira hautazko irakasgaien matrikularen datuetan**. Helburua da mugikortasun-programek ez kaltetzea EHUko irakaskuntza-eskaintza.
- **Sailek zaindu beharko dute euskaradun hizkuntza-profil elebiduna edo hirueleduna duten irakasle guztiak beren irakaslanean gutxienez irakasgai bat (edo irakasgai baten zati esangarria) ematen dutela euskaraz.**

1.3. Hizkuntza ez-ofizialetako irakasgaien eskaintza

UPV/EHUko Estatutuetan (2004/01/12) eta Euskal Unibertsitate Sistemaren Legean (2004/03/12) oinarrituta, hizkuntza ez-ofizialak instrukzio-hizkuntza modura erabiltzen hasteko prozesua abian jarri zen 2005. urtean, [Eleaniztasun Plana](#) deritzon dokumentuaren bitartez. Plana. Orain arte (2025-26 ikasturtera arte) indarrean egon diren planak bi dira: [UPV/EHUren III. Nazioartekotze Plana \(2023-2026\)](#) eta horren helburuak betetzeari begira onartutako azken ebazpena ([Ebazpena, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzak sustatutako deialdia egiten duena, hizkuntza ez-ofizialetako irakaskuntza baimentzeko eta 2025-2026 ikasturterako irakasgaien nazioarteko ibilbideak sortzeko](#)).

Dokumentu horiek kontuan hartu behar ditugu irakaskuntza-eskaintza osatzeko eta baimentzeko orduan, besteak beste, hainbat ikastegi azken urteetan engainatuta baitaude plan horien helburu batzuk betetzen saiatzeko, eta abian jarritako estrategiak ezin baitira bertan behera utzi. [Ebazpena, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzak sustatutako deialdia egiten duena, hizkuntza ez-ofizialetako irakaskuntza baimentzeko eta 2025-2026 ikasturterako irakasgaien nazioarteko ibilbideak sortzeko](#) dokumentuak zehazten du UPV/EHUren III. Nazioartekotze Planean (2023-2026) jasota dagoela Prestakuntza ardatzean **UPV/EHUK bere ikastegi bakoitzak gutxienez nazioarteko ibilbidea duen gradu bat eskaintzea sustatuko duela**. Eta honela dio:

«Helburu hori lortzeko ezinbestekoa da, besteak beste, sortzea irakasgaien ibilbideak, zeintzuen kreditu kopurua izango den Unibasqen nazioartekotzeko kalitate zigilua lortzeko behar direnak beste (deialdi hau argitaratzen den unean graduko kreditu guztien % 20ri dagokion kopurua gutxienez). Gainera, kontuan hartu behar da ikasleak aukera izan behar duela nazioartekotze hori aitortuta izateko tituluaren gehigarri europarrean eta, horretarako, graduko ECTS kredituen % 25 egin behar duela gutxienez, EAEn ofiziala ez den hizkuntza batean, GrALa/MALa barne. Hortaz, ibilbideak hori egiteko modua eskaini beharko dio».

Bi ekintza proposatzen dira horretarako, eta zehaztu ezin dela irakasgairik aurkeztu bi ekintzetan batera:

1. ekintza: Hizkuntza ez-ofizialetan graduan irakasteko baimena ematen jarraitzea (irakasgai solteak edo bloke baten parte direnak).
2. ekintza: Baimentzea beharrezkoa izango diren irakasgaiak ikastegi bakoitzean nazioarteko ibilbide bat lortzeko.

HIZKUNTZA EZ-OFIZIALAK INSTRUKZIO-HIZKUNTZA MODURA ERABILTZEKO ARRAZOIAK

- **EHUko ikasleek oinarriko esperientzia izatea graduan edo masterrean komunikazio akademikorako *lingua franca* den ingelesez, edo beste hizkuntza ez-ofizial batean, nazioarteko mugikortasunerako edota etorkizunean ikerketa- edo lan-munduan aritzeko.**
- Sócrates-Erasmus, Séneca-Sicue eta bestelako **mugikortasun-programen bidez guregana datozen ikasleentzako irakaskuntza-eskaintza handitzea.**
- Ikastegiekin Unibasqen nazioarteko kalitate-zigilua lortzea.
- Ikasleek gradua edota masterra bukatu ondoren **nazioartekotzea aitortua eduki ahal izatea** tituluaren gehigarri europarrean.
- Nolanahi ere, zehaztu beharrezkoa da guregana datozen eta kanpora doazen gure ikasleen mugikortasuna ez dela posible egiten bakarrik ingelesaren (edo bestelako hizkuntza ez-ofizialaren) bidez. **Gaztelania eta, askoz ere neurri txikiagoan, euskara ere, badira mugikortasunerako tresnak.**

- Nazioartekotzeari dagokionez ere, azpimarratu beharrekoa da ikasleek graduan edota masterrean ez ezik, **doktoregoan ere badutela «Nazioarteko Doktoregoa» aipamena lortzeko aukera**. Gainera, «Nazioarteko Doktoregoa» aipamena lor daiteke hizkuntza ez-ofizialen bat gabe espainola erabiliz, bestelako baldintzak betez gero.
- **Gradu guztiak ez dira berdinak hizkuntza ez-ofizialen erabilerari dagokionez**. Izan ere, gradu batzuen kasuan garrantzitsuagoa da euskarazko (edota gaztelaniazko) hizkuntza-gaitasun bikainak garatzea hizkuntza ez-ofizialak jakitea baino.
- Ikasle guztiak ez dute parte hartzen mugikortasun edota nazioartekotze programetan, eta **funtssezkoa da bertako irakaskuntza-eskaintzaren kalitatea eta euskaraz ikasteko eskubidea ez konprometitzea** programa horien aitzakian.

GRADUAN HIZKUNTZA EZ-OFIZIALETAKO IRAKASKUNTZA-ESKAITZA KUDEATZEKO IRIZPIDEAK

- Aurreko ikasturteetan hizkuntza ez-ofizialetako ibilbideak osatzen hasi diren ikastegiek **ibilbide horiek osatzen jarraitzeko irakasgai berriak proposatu ahal izango dituzte**, edota aurreko urteetan eskaini diren eta lehen fasean IIP Zuzendaritzak baimendu ez dituen irakasgaiak mantentzeko eskaria egin, betiere ikasle kopurua gutxienez 7-10ekoa izan bada.
- **Aurreko ikasturteetan hizkuntza ez-ofizialetako ibilbideak osatzen hasi diren ikastegiek bertan behera utzi ahal izango dute helburua** eta irakasgai bat edo batzuk kendu, graduaren berezitasunetan oinarrituta argudio sendoak badituzte horretarako.
- **Hizkuntza ez-ofizialetako irakasgaien eskaintza beti oinarritu behar da irakasgai atxikita duen sailak dituen irakasle hirueledunen edo ingelesa-gaztelania elebidunen kopuruan**. Eskaintzen diren irakasgai kopuruaren bikoitzaren pareko irakats-gaitasuna eduki beharko dute hizkuntza ez-ofizialetan irakasteko akreditazioa duten irakasleen artean. Baldintza hori betetzen duten nahikoa irakasle ez badute, sustatu beharko dute irakasgaiak hizkuntza ez-ofizialetan ematen dituzten saileko ikasleek hizkuntza-profilaren aldaketa eska dezaten.

2. Osasun alorreko graduatarako hizkuntza-irizpideak

Osasun alorreko graduatan bereziki garrantzitsua da euskararen presentzia bermatzea. Eredu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunak (1992) hizkuntza gutxituetako hiztunei aitortzen die beren hizkuntzan artatuak izateko eskubidea. Bestalde, osasun-zerbitzuen kalitatea pazientean oinarritutako osasun-arretarako ereduak sustatzen da egun, eta horrek nahitaez komunikazioaren eraginkortasunaren garrantzia aintzat hartzea garrantzitsua. Hainbat ikerketa enpiriko daude erakusten dutenak osasun-alorreko profesionalen komunikazio-gaitasunen eta pazienteen gogobetetzearen eta osasun-arretaren emaitzen arteko korrelazioa dagoela. Zenbait ikertzailek arreta jarri dute estatus soziolinguistiko desberdinetako hizkuntzak erabiltzen diren herrialdeen osasun-sistematan, eta hainbat ebidentzia jaso dituzte hizkuntza-hautuek osasun-arretaren kalitatean duten eraginaz. Ikerketa horien arabera, pazienteei eta familiei, aukera ematen zaienean, hizkuntza gutxitua erabiltzea nahiago dute osasun-arazoren bat pairatzen dutenean bizi dituzten estres- eta zaurgarritasun-egoeretan. Ildo horretatik, eta pazienteari begirako osasun-arretaren testuinguruan, praktika egokietarako ezinbesteko osagaitzat hartu behar da pazienteei osasun-arretarako hizkuntza-hautapena erraztea. Hizkuntza-hautapen kontua baino gehiago da kasu askotan. Izan ere, gerta daiteke osasun-arreta behar dutenek hizkuntza gutxitua baino ez jakitea. Gure artean, adibidez, badira euskara baino ez dakiten haurrak, edota hizkuntzari eragiten dion dislexia, afasia edo bestelako patologia batengatik, terapia bereziak behar dituzten pertsonak.

Hortaz, EHUK erantzukizun berezia du osasun alorreko profesional euskaldunak prestatzeari dagokionez. Osasun alorreko gradu ugari eskaintzen ditu EHUK: Medikuntza, Erizaintza, Fisioterapia, Odontologia, Farmazia, Giza Nutrizioa eta Dietetika, Psikologia eta Logopedia. [Irakaskuntza-eskaintza instrukzio-hizkuntzen arabera. 2025-26 ikasturteko eskaintza IV. Euskara Plan Gidarian jasotako 2023-24 ikasturteko eskaintzarekin alderatuta](#) dokumentuan jasotako egoera honela laburbil daiteke:

Medikuntza: Nahitaezko eta hautazko irakasgai guztiak egin daitezke euskaraz, zenbait ikasgunetan ezin dira irakasgai kliniko guztiak egin euskaraz: Arabako ikasgunean (0 irakasgai euskaraz), Donostiako ikasgunean (% 100 euskaraz), Basurtuko ikasgunean (% 97 euskaraz), Gurutzetako ikasgunean (% 97 euskaraz) eta Galdakaoko ikasgunean (% 100 euskaraz).

Erizaintza: Gradua osorik egin daiteke euskaraz. Leioako ikasgunean, EPGko irakasgaiak kontuan hartu gabe berdintsua da euskarazko eta gaztelaniazko hautazkoen eskaintza, eta hautazko irakasgai guztiak eskaintzen dira euskaraz. Gipuzkoako ikasgunean, aldiz, EPGko irakasgaiak kontuan hartu gabe handiagoa da gaztelaniazko hautazkoen eskaintza, euskarazko hautazkoen eskaintza baino, eta 3 hautazko daude euskalduntzeke.

Fisioterapia: Gradua osorik egin daiteke euskaraz, baina EPGko irakasgaiak kontuan hartu gabe handiagoa da gaztelaniazko eskaintza euskarazkoa baino. 3 hautazko irakasgai daude euskalduntzeke.

Odontologia: Nahitaezko irakasgai guztiak egin daitezke euskaraz, baina EPGko irakasgaiak dira euskaraz egin daitezkeen hautazko bakarrak. 5 hautazko irakasgai daude euskalduntzeke.

Farmaziako gradua: Osorik egin daiteke euskaraz, gaztelaniazko eskaintza euskarazkoa baino handiagoa bada ere. 4 hautazko irakasgai daude euskalduntzeke.

Giza nutrizio eta dietetikako gradua: osorik egin daiteke euskaraz, baina bakarrik EPGko irakasgaiak aukeratuz gero. 2 hautazko irakasgai daude euskalduntzeke.

Psikologia: gradu osoa egin daiteke euskaraz, baina EPGko irakasgaiak kontuan hartu gabe handiagoa da gaztelaniazko hautazkoen eskaintza euskarazkoena baino. Nolanahi ere, plan berria ezartzen ari da, eta oraindik 3. eta 4. mailak ezarri gabe daude.

Logopedia: gradu berria da eta oraindik ez dira ezarri 3. eta 4. ikasmilak. Nolanahi ere, gradua hirueledun modura diseinatu da, eta nahitaezko irakasgaien % 50 baino ez dira eskaintzen euskaraz. Hautazko irakasgaiak ez da eskaini oraindik. Logopedek, besteak beste, hizkuntzarekin lotutako patologia tratatu behar dituzte, eta oso maiz hurrekin lan egin behar dute. Euskara hizkuntza gutxitua izanik, patologia eta azalduak identifikatzeko protokoloak behar dira, eta, jakina, funtsezkoa da profesionalen hizkuntza-gaitasun bikaina izatea, diagnostikoak eta tratamenduak aurrera eramateko. Gradu hirueleduna baino ez eskaintzeak gradua ikasi nahi duten ikasleei eskatzen die euskarazko eta ingelesezko akreditazioa izatea eta, beraz, ezin dira sartu euskaraz ez dakitenak, ezta ingelesez ez dakiten euskaldunak ere. Hortaz, gure iritziz, graduaren hizkuntza-irizpideak berraztertu beharko liriteke. Ondo justifikatuta legoke gradua euskaraz baino ez eskaintzea.

3. Gradu hirueledunak eta ingelesez soilik eskaintzen direnak

EHUn bada graduren bat ingelesez baino eskaintzen ez dena. Gradu hirueledunen artean hiru mota bereiz daitezke:

- a) Ikasketa-planetan euskara hutseko graduaz gain, gradu hirueleduna ere sortu dutenak, adibidez, Haur eta Lehen Hezkuntzako graduak.
- b) Hasieratik gradu hirueleduna baino sortu ez dutenak, adibidez, Logopediako gradua.
- c) Gradu hirueledun modura sortu ez badira ere, eleaniztasun-planetan ingelesezko irakasgaiak proposatu ahal diren hirueledun bihurtzen joan diren graduak, adibidez, zenbait ingeniariak.

Zenbait gogoeta egin behar dira horien inguruan:

- Gradu hirueledunak egin ahal izateko nahitaezkoa da euskaraz jakitea eta, beraz, gradu horietan ezin dira matrikulatu euskaraz ez dakiten EAEko edo EAETik kanpoko ikasleak.
- Mugak ezartzen dizkiete ingelesezko akreditaziorik ez duten ikasleei. Kontuan hartu behar da EAEko biztanle guztiek aukera dutela euskaraz ikasteko hezkuntza publikoan, baina ingelesez ikastea eta ezagutza akreditatzea ezinezkoa izan daiteke ekonomikoki zaugarriak diren gizarte kideentzat.
- Euskalduntzeko premia handiena duten profesioen kasuan, adibidez, Logopedian, gradua egiteko zailtasunak izan ditzakete euskarazko gaitasun bikaina duten baina ingelesezko ezagutza akreditatzeko aukerarik ez duten ikasleek.
- Euskararen prestigioari dagokionez, ohikoa da ikasleek ulertzea gradu hirueleduna edo ingeles hutsean eskaintzen dena prestigio handiagokoa dela euskarazko gradua baino, eta EHUn eginkizuna izan behar da euskara sustatzea instrukzio-hizkuntza modura.

Hortaz, gomendio batzuk eman behar ditugu:

- Ingeles hutseko graduak eta gradu hirueledunak bakarrik eskaini beharko lirateke euskara hutseko graduak bermatuta egon ondoren.
- Gradu hirueleduna eskaintzea justifikatuta dagoenean, sakonki aztertu beharko da zer ikasmailetako eta zer izaerako irakasgaiak komeni den eskaintzea hizkuntza bakoitzean, betiere ikasleen hizkuntza-gaitasunak eta kontzientzia linguistikoa eta soziolinguistikoa garatzeari begira.
- Ingeleseko edo bestelako hizkuntza ez-ofizialen ibilbideen ezarpena abian jartzeko, bermatuta egon behar da euskarazko irakaskuntza-eskaintza, eta ibilbide horiek ezin dira erabili euskarazko irakaskuntza-eskaintza mugatzeko.
- Gradu hirueledunak sortzea ez da gaztelaniazko lerroen matrikula baxua konpontzeko bidea, ikasleei gaztelania ez ezik euskara eta ingelesa ere jakitea eskatzen baitiete gradu horiek.

4. Masterrak

Masterretan oso mugatuta dago euskarazko irakasgaien eskaintza (ikus [Masterreko irakaskuntza-eskaintza instrukzio-hizkuntzen arabera: 2025-26 ikasturteko eskaintza](#)). Kontziente gara ez dela erraza eskaintza hori handitzea, eta arreta berezia eskainiko zaizkie euskarazko irakasgai baimentzeko orduan, euskararen presentzia ahal den eta gehien handitzeari begira. Hori dela eta, 10 ikasle baino gutxiagoko taldeak baimendu ahal izango dira.

Bereziki gomendagarria da masterretako ikasleek MALa euskaraz egin dezaten sustatzea, eta horiei prestigioa ematea.